


Carlos Olaetxea Elozegi

Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurralde arkeologoa

“Ikerketa oso garrantzitsua da, baina aztarnategia jendeari ezagutaraztea ere bai”



Arkeologia izan da betidanik bere pasioa, baina urte askoan liburuzain jardun behar izan du, Tolosan eta Donostian, arkeologiak ez ziolako bizitzeko ematen. Duela hiru urte eta erdi, baina, Gipuzkoako Aldundiaren lurralde arkeologo postua lortu zuen, eta orain afizioa ofizio bihurtu zaio. Bere mahaitik pasatzen dira Gipuzkoan arkeologiarekin zerikusia duten proiektu guztiak, eta oso ondo ezagutzen du Zarauzko Santa Maria la Realeko aztarnategia.

.. Santa Maria la Real aztarnategiaren garrantzia:

“Bi aldetatik dauka garrantzia. Batetik, sekuentzia estratigrafikoa nahikoa zabala delako, baditugulako Burdin Aroko arrastoak datatuta, orain dela 2.500 urtekoak. Gero, Erromatar Garaikoak ere baditugu; eta Erdi Arokoak ere bai, eta gainera Erdi Aroa oso zabal hartuta, IX-X mendetik hasi eta gaur egun arteko sekuentzia estratigrafiko osoa. Hori dena leku berean edukitzea, nahikoa ondo kontserbatua eta industeko moduan, garrantzitsua da.

Bestetik, aukera izan dugu hori musealizatzeko eta jendeari erakusteko. Zenbait aztarnategi, oso interesgarriak direnak, gero estali behar izaten dira eta ez dira gehiago ikusten. Emaitzak azaltzen dira aldizkari zientifikoetan eta kitto. Hor gelditzen da dena. Kasu honetan, dorrean zein elizan agertu ziren aztarnak jendeak ikus ditzake, orain egiten ari diren indusketak ere bisita daitezke. Sozializazioari eman zaion garrantzia azpimarratzekoa da. Maila honetan musealizatu den lehen aztarnategia izan da.

Eta horretaz guztiaz gain, aztarnategia zabaltzeko aukera dago. Beste batzuk askoz mugatuagoak dira, eta honek ez dakigu non dituen mugak. Gauza gehiago ager daitezke oraindik.

Eta kontu konkretuagoak aipatzeko, metalezko materialen bilduma oso garrantzitsua da,

kompletoa, Erdi Aroko tresnena ere bai... Gero, Burdin Aroko etxe egitura hori dago. Euskal Herri osoko kostaldean aurkitu dugun lehena da, ia-ia hondartzan bertan. Orain arte aurkitutako herrirka guztiak mendi tontorretan zeuden, ondo babestuta, harresi batekin... Antzeko modeloak Galizian eta Astúriasean ezagutzen ditugu, kostako kastroak, baina horiek ere babestutako lekutan egoten dira, penintsula txikietan-eta, eta, gainera, ez dira hain zaharrak, Erromatar Garaikoak dira. Hau nahikoa ezustekoa izan da, hain itsasertzean. Oraingoz etxe bat baino ez dugu, baina baliteke inguruan herrirka oso bat agertzea”.

.. Hipotesi berria Burdin Aroaz:

“Zarauzko aurkikuntzarekin orain arte zegoen eskema zerbait alda daiteke. Esate baterako, Irungo Oiasoko aztarnategia, Erromatar Garaikoa, bere osotasunean hartuta, Zarauzkoa baino garrantzitsuagoa dela esan daiteke. Zarauzko eskema honek balio dezake Irunen zerbait berria topatzeko, Irunen ez baita ezer aurkitu Burdin Arokoa, erromatarren aurrekoa; eta, jakin badakigu, han jendea bizi zela erromatarra iritsi aurretik, baina ez dugu ezer topatu. Beti bilatu dugu inguruko mendietan, tontorretan, eta agian hondartzan bilatu behar dugu. Zarautzek hipotesi hori zabaldu du. Eskema hori orain arte ez genuen ezagutzen hemen Gipuzkoan”.

.. Erromatarrek hemen izan ziren:

“Erromatarrek Euskal Herrira ez zirela sartu hemengoak oso indartsuak ginelako, hori ideia erromantiko bat baino ez da. Ez du ez hankarik ez bururik. Erromako armada munduko handiena zen; gaur egungo AEBetako armadarekin aldera dezakegu. Euskal Herria oso herri txikia zen eta hemen zegoen jendeak ezin zion inola ere aurre egin. Zentzugabekeria litzateke esatea AEBetako armadak ezin izan duela Borneoko irla txiki bat konkistatu, hango biztanleak menderaezinak egin zaizkiolako. Beste kontu bat da erromatarrek zenbaterainoko interesa zuten lurraldea

beraizentzat hartzeko. Baina garbi ikusten da interesa zuten lekuetan nagusitzen zirela; esate baterako, Oiason, hango meategiak interesatzen zitzaizkien. Eta Zarautzen ere, zerbait izango zen haien interesekoa.

Inguruan ez dago guda arrasto handirik. Badirudi, harreman nahikoa ona izan zitekeela bertakoen eta erromatarren artekoa. Nafarroan, aldiz, bai aurkitu dituztela armaden eta guden aztarnak. Badirudi baskoiek tirabirak izan zituztela erromatar batzuekin, baina beste batzuekin ondo moldatzen zirela. Orduko geopolitika ere guk uste baino korapilotsuagoa zen, ezin dugu sinplifikatu. Eta beste zenbait tokitan, Gipuzkoan, ez ziren sekula izan, ez zutelako inolako interesik, ez biderik. Ez dago beste azalpenik. Baina Gipuzkoan aztarnak utzi dituzte, Zarautzen esate baterako. Oraindik ez dakigu oso ondo egitura handi horiek zer diren. Ez dakigu erlijioarekin zerikusirik ba ote zuten, espazio publiko bat izan daitekeela dirudi... Gero badaude eraikin sendo baten arrastoak, tenplu bat ote zen? Hori oraindik ezin izan dugu finkatu”.

.. Erdi Aroko hilerria, osoenetakoa:

“Badaude pareko batzuk. Bizkaian, batez ere. Zarautzen sekuentzia osoa aurkitzen dugu, denboran eta espazioan ondo kokatua, eta aukera ematen du hilobien eboluzioa aztertzeko. Ikusten da lehenak hormatxo batzuekin eginda zeudela; ondorengoak, harlauza batzuekin... Gipuzkoan dagoen sekuentziarik osoena dela esango nuke. Bizkaian badaude antzeko batzuk. Duela gutxi, Foruako elizaren barrenean, aztarnategi oso antzekoa aurkitu dute. Eskema errepikatzen da. Eliza dagoen lekua sakratua dela dirudi, baina leku sakratua lehen elizatik atzera eginda ere, kristautasunaren aurretik ere. Leku sakratuek denboran irauten dutela ikusten da, eta hori Zarautzen oso ondo ikusten da”.

.. Indusketa berria martxan:

“IX-X. mendeko hilobi horiek harrizko hormatxoekin eginak daude, eta harlauza batekin daude estaliak. Orain elizatik iparraldera egiten ari den indusketan, hilobietako batek egurrezkoa du estalkia harrizkoa izan beharrean. Bitxia da, ezberdina, eta horrek zerbait esan nahi du. Antzekoak Murtzia (Espainia) aldean aurkitu dira, V.mendearen ingurukoak, baina horrek ez du esan nahi Zarauzkoa ere V. mendekoa denik. Datazioa egiteko dago oraindik, eta oraingoz ezin zaio aparteko garrantziarik eman.

Bestalde, zati batean jada Erdi Aroko hilerriak behera ari dira indusketa egiten, Erromatar Garaiko mailan, eta gainera, sutondo bat ere aurkitu dute, hiru harriekin. Lur erre eta barruan ezkurak aurkitu dira, erreta. Printzipioz, badirudi Erromatar Garaiko mailan dagoela, baina hortik Burdin Aroko mailara oso zentimetro gutxi daude. Nik Andoaingo Buruntzan, Burdin Aroko herrixkan egin nituen indusketetan, barruan ezkur erreak zituzten keramikak aurkitu nituen -ezkurak erre

egiten zituzten ogia egiteko. Estrabonek aipatzen zuen bere garaian. Ezkurrek tanino asko dauzkate eta ezin dira jan gordinik-. Eta Zarautzen egin zen aurreko indusketan agertu zen Burdin Aroko etxearen egitura Buruntzakoaren garai berekoa da, eta, gainera, oraingo aurkikuntza honen segidan dago, ondoan... Beraz, baliteke orain topatutako su hori ere Burdin Arokoa izatea. Gainera, 40 bat ezkur agertu dira, multzo handi samarra. Baina oraindik ezin da ezer baieztatuz, datazioak egiteko daude eta”.

.. Aztarnategiaren gizarteratzea:

“Arkeologoentzat eta instituzioentzat oso garrantzitsua da horrelako lan baten emaitzak gizarteratzea, aztarnategia gizarterari ezagutzera ematea. Bide horretatik joan diren proiektuak dira Aldundiak baltzatu dituenak, musealizatzeko aukera zutenak, horiek garrantzi bikoitza dutelako. Ikerketa oso garrantzitsua da, baina jendeari ezagutaraztea ere bai. Eta arkeologoarentzat ere lagungarria da onespren soziala lortzeko. Ikertzea asko gustatzen zaigu, lan isil hori, baina beste horrek ere badu bere garrantzia”.

.. Turismo arkeologikoa:

“Aztarnategi arkeologikoa ezin ditugu parke tematiko bihurtu, muga batzuk jarri behar dira, eta kontserbazioa da ziurtatu behar den lehen gauza. Hortik aurrera, turismoa diru iturria izan daiteke, eta turismoaren dibertsifikaziorako ona izan daiteke. Gu pentsatzen ari gara musealizatzen diren leku horiek, gizarteratzen direnak, beste diru iturri batzuk bilatu beharko dituztela, turismoarekin zerikusia dutenak. Kultura hutsetik aterá eta enpresa moduan jardun. Zenbait herrik jarduera horietatik ateratzen dute diruaren zatirik handiena. Gurea xumeagoa izango da, baina bide bat izan daiteke aztarnategia gizarteratzeko eta dirua ateratzeko. Beti kontserbazioaren muga jarrita”. ■

Izena: Carlos Olaetxea Elozegi

Jaio: Berastegi, 1962.

Bere jarduna: Historia ikasi zuen eta Gasteizen espezializatu zen arkeologian. Madrilgo Complutense unibertsitatean egin zuen doktoretza 1999an, Euskal Herriko protohistoriako keramikari buruz. Horrez gain, zenbait urte eman zituen Burdin Aroko kastroak eta herrixkak ikertzen. Horietako lau aurkitu ditu Gipuzkoan. Urte askoan liburuzain izan da lanbidez, Tolosan eta Donostian “arkeologiak ez zuelako bizitzeko ematen”, duela hiru urte eta erdi Aldundiko arkeologo plaza lortu zuen arte.

Nombre y apellidos: Carlos Olaetxea Elozegi.

Nacimiento: 1962, Berastegi.

Actividad: Estudió historia y se especializó en arqueología en Gasteiz. Realizó el doctorado en la Universidad Complutense de Madrid, sobre la cerámica en la protohistoria de Euskal Herria. Además, a dedicó años al estudio de castros y poblados de la Edad del Hierro. Ha hallado cuatro en Gipuzkoa.

Carlos Olaetxea Elozegi

Arqueólogo de la Diputación Foral de Gipuzkoa

“La investigación es muy importante, pero también lo es acercar el yacimiento a la gente”

La arqueología ha sido siempre su pasión, pero durante muchos años ha ejercido de bibliotecario, en Tolosa y en Donostia, porque la arqueología no le daba para vivir. Pero hace tres años y medio consiguió la plaza de arqueólogo de la Diputación de Gipuzkoa, y ahora su vocación se ha convertido en oficio. Por su mesa pasa todo lo que tenga relación con la arqueología en Gipuzkoa, y conoce perfectamente el yacimiento de Santa María la Real.

Sobre la importancia del yacimiento de Santa María la Real. “Tiene mucha importancia, desde dos puntos de vista, principalmente. Por un lado, porque la secuencia estratigráfica es muy amplia. Tenemos elementos de la Edad del Hierro, de hace unos 2.500 años. Después hay restos de la Época Romana; y para terminar, de la Edad Media, y hablamos de una Edad Media muy extensa, partiendo desde los siglos IX-X. Tener toda esa secuencia en un sólo lugar, bastante bien conservado y con posibilidad de excavarlo o investigarlo, es muy importante. Por otro lado, hemos tenido la posibilidad de musealizar en yacimiento y mostrárselo a la gente. Hay yacimientos, que aún siendo muy interesantes, hay que volver a cubrirlos una vez realizada la investigación, y ya no pueden volver a verse. Se publican los resultados en las revistas científicas y ahí termina todo. En el caso de Zarautz, la gente puede visitar los restos que aparecieron en la torre y en la iglesia, e incluso pueden seguir los trabajos de excavación que se están realizando hoy en día. Hay que resaltar la importancia que se le ha dado a la socialización del yacimiento”.

Una nueva hipótesis acerca de la Edad del Hierro. “Gracias a los hallazgos de la Edad del Hierro, al borde de la playa, el esquema que predominaba hasta hoy en día puede cambiar en cierto modo. Por ejemplo, el yacimiento de Olasso, en Irun, que corresponde a la Época Romana, podemos decir que en su conjunto es más relevante que el de Zarautz. Pero en Irun no hemos hallado nada anterior a los romanos, aún sabiendo que allí habitaba gente antes de la Época Romana. Y el esquema de Zarautz puede ser válido para aplicarlo en Irun, porque hasta ahora hablamos buscado en las colinas, y quizás debamos buscar cerca de la playa. Zarautz ha abierto esa hipótesis”.

Los romanos estuvieron aquí. “Que los romanos no entraron en Euskal Herria porque los lugareños eramos muy fuertes no es más que una idea romántica. No tiene ni pies ni cabeza. El ejército romano era el más poderoso del planeta, equiparable a lo que hoy en día representa el ejército estadounidense. Euskal Herria era un país muy pequeño, y las gentes de aquí no podrían hacerles frente. Sería un sin sentido pensar que el ejército de los Estados Unidos no pueda conquistar una pequeña isla de Borneo porque sus habitantes son invencibles. Otra cuestión es el nivel de interés que Roma pudo tener para hacerse con el territorio. Pero está claro que conquistó aquellos lugares que le interesaban; por ejemplo Olasso, porque les interesaban las minas de la zona. Y en Zarautz, seguro que había algo que atraía su interés. Además en la zona no hay ningún rastro de conflicto bélico. Parece que la relación entre los lugareños y los romanos era amistosa. En Navarra, en cambio, sí que se han encontrado restos de ejércitos y de guerras. Parece ser que los vascones tenían sus más

y sus menos con algunas facciones romanas, aunque con otras mantenían buenas relaciones. Lo que está claro es que en aquellos tiempos la geopolítica era más compleja de lo que podemos pensar.

Y seguro que a algunos lugares de Gipuzkoa los romanos no llegaron, simplemente porque no les interesaba o no les quedaba de paso. No hay otra explicación. Pero hay que decir que en Gipuzkoa tenemos restos romanos, por ejemplo en Zarautz. Todavía no sabemos a ciencia cierta que a que tipo de construcciones corresponden. Podría haber algún espacio público, algún edificio religioso, pero está sin determinar”.

La necrópolis medieval, de las más completas. “Hay algunas semejantes, sobre todo en Bizkaia. En Zarautz tenemos la secuencia completa, bien situada en el espacio y en el tiempo, y nos da la posibilidad de estudiar la evolución de los tipos de enterramiento. Es la secuencia más completa de Gipuzkoa”.

Primeros resultados de las nuevas excavaciones. “Las tumbas de los siglos IX-X suelen estar hechas con murete de piedra y van cubiertas con losas de piedra. Pues en las nuevas excavaciones que se están realizando al norte de la iglesia ha aparecido una tumba de similar estructura, pero con una cubierta de madera. Es una curiosidad, porque es distinta a las demás; su significado tendrá. Se ha encontrado alguna similar en Murcia, del siglo V, pero eso no quiere decir que la de Zarautz también sea de esa época. Es algo que aún está sin determinar.

Por otro lado, en una parte de la nueva excavación, ya se ha separado el nivel perteneciente a la necrópolis medieval, y se han encontrado restos de un fuego, con tres piedras y un conjunto de bellotas asadas. En principio, parece que se hallan en el nivel de la Época Romana, pero hay que tener en cuenta que muy pocos centímetros la separan de la Edad del Hierro. En las excavaciones que llevé a cabo en Andoain, en el poblado de la Edad del Hierro de Buruntza, encontré una serie de cerámicas que contenían bellotas asadas —asaban las bellotas para hacer pan. Así lo cuenta Estrabón. Las bellotas crudas no son comestibles porque contienen algunos niveles de taninos—. Aquel poblado y los restos hallados anteriormente en Zarautz dentro de la iglesia son de la misma época, y, además, los restos de la iglesia y los ahora hallados están uno junto al otro. Por lo tanto, se puede pensar que este nuevo fuego sea también de la Edad del Hierro. Pero todavía no puede asegurarse nada, porque la datación está por hacer”.

La socialización del yacimiento. “Tanto para los arqueólogos como para las instituciones, es muy importante la socialización de los resultados de la investigación, que la gente conozca el yacimiento. La Diputación ha apoyado aquellos proyectos que han apostado por ese camino, aquellos que permitan su musealización, porque su valor es doble. La investigación es muy importante, pero también lo es acercar el yacimiento a la gente. Y al arqueólogo le ayuda a que su trabajo sea bien considerado socialmente.

El turismo arqueológico. “No podemos convertir los yacimientos en parques temáticos, hay que poner una serie de límites, y la conservación de los restos es el fundamental. A partir de ahí, el turismo puede ser una fuente de ingresos a considerar, y puede ser un modo de diversificar la oferta turística. Nosotros pensamos que aquellos lugares que logran musealizarse, logran socializarse, deberán considerar el turismo como fuente de ingresos y de financiación, deberán de empezar a pensar como una empresa”. ■